


# XVI CONGRESO ESPAÑOL DE SOCIOLOGÍA

## SOZIOLOGIAKO ESPAINIAKO XVI. KONGRESUA

Retos, evidencias, soluciones  
Erronkak, ebidentziak, erantzunak

➔ **BILBAO**  
Uztailak 15-17 julio

# 2026



# XVI CONGRESO ESPAÑOL DE SOCIOLOGÍA SOZIOLOGIAKO ESPAINIAKO XVI. KONGRESUA

Retos, evidencias, soluciones  
Erronkak, ebidentziak, erantzunak

➔ **BILBAO**  
Uztailak 15-17 julio **2026**

16

## AURKEZPENA

2026ko uztailaren 15etik 17ra bitartean, Bilbon ospatuko da Soziologiako Espainiako XVI. Kongresua, honako leloarekin: **“Erronkak, ebidentziak, erantzunak”**. Kongresua Espainiako Soziologia Federazioak antolatuko du, **Euskal Soziologia eta Zientzia Politikoaren Elkarte (AVSP/ESZPE)**, **Euskal Herriko Unibertsitatea (UPV/EHU)** eta **Deustuko Unibertsitatearekin** lankidetzan.



FEDERACIÓ ESPANYOLA DE SOCIOLOGIA  
ESPAINIAKO SOZIOLOGIA FEDERAZIOA  
FEDERACIÓN ESPAÑOLA DE SOCIOLOGÍA



Soziologiako Espainiako Kongresua Espainiako soziologiaren ekitaldi nagusia da. Ezagutza eta eztabaidarako gune bat da, non soziologiaren eta beste gizarte-zientzien arloko ikerketarik berrienak aurkezten diren.

Espainiako Soziologia Federazioak 1981etik antolatzen du kongresua, parte-hartze handiarekin. Azken edizioetan 1.400 parte-hartzaile baino gehiago, 2.500 egile inguru, 45 ikerketa-talde eta 40 jarduera baino gehiago izan dira.

Halaber, kongresuak erakunde publiko eta pribatuen babesa du.

## FES: NOR GARA?

Espainiako Soziologia Federazioa (FES) Espainiako soziologiaren elkarte zientifikoa da. 3.000 profesional baino gehiago biltzen ditu, eta autonomia-erkidegoetako elkarteek, unibertsitateek, erakunde zientifiko eta profesionalek eta banakako kideek osatzen dute.



**BISITATU EZAZU GURE WEBGUNA:**  
**WWW.FES-SOCIOLOGIA.COM**

## ZER AURKI DAITEKE KONGRESUAN?

- Soziologiako ikerketarik onena eta anitzena aurkezteko foro handiena.
- Espainiako gizartearen eta nazioarteko testuinguruaren diagnostikoak.
- Profesionalen topagunea esperientziak trukatzeko
- Argitalpen aukerak: Espainiako Soziologiaren argitaletxe eta aldizari garrantzitsuenak kongresuan egongo dira. Ikerketa talde askok harremanak egiten dituzte estatu zein nazioarte mailako aldizkariekin, kongresuan partehartzen duten pertsonak argitaratzeko aukerak erraztuz.

- Negozio-aukerak zerbituzen aurkezpenaren bidez.
- Nazioartekotzearen aldeko apostua: ikerketa talde askok nazioarteko orientazioa dute eta gero eta nazioarteko ikertzaile gehiagok partehartzen dute kongresuan.
- Gazteei zuzendutako prestakuntza-tailerra, gehien bat soziologiaren azterketa eta metodoi loturikoak.



## XVI. KONGRESUAREN EGOITZA ETA HIRIA

EGOITZA BILBO DA, "BILBOKO ERDIGUNEA", ETA KONGRESUA ERAKUNDE EZBERDINEK HARTUKO DUTE.

Jarraian, kongresua garatuko den egoitza eta instituzio ezberdinak deskribatuko ditugu, kontuan izanik oinez egoitza hauen arteko tartea oizez ez dela 15 minutu baino gehiagokoa.

### KONGRESUAREN EGOITZA NAGUSIA: **Bizkaia Aretoa – UPV/EHU**

Kongresuaren egoitza Nagusia Bizkaia Aretoa eraikina (BBK- UPV /EHU), eta bertan kokatuko da idazkaritza, akreditazioak, hainbat sinposio, osoko bilkurak, standak erakusketa, erakundeen standak, posterrak, biltzarkidearen aretoa, etab.



### KONGRESUAREN IREKIERA-EKITALDIKO EGOITZA: **Euskalduna Jauregia**

Inaugurazio-konferentziak Euskalduna jauregian Euskalduna ospatuko da (arrosa planoan). Kongresuen eta Musika Jauregi honek 4200 lagunentzako lekua du, 2.264 eserleku auditorio handi btean eta 18 areto independenteetan banaturik. Diseinuak Euskalduna ontziola historikoak egindako azken itsasontzia sinbolizatzen du, ontziola honen orubearen gainean kokatzen delarik jauregia.



KONGRESUAREN IKERKETA ETA LAN TALDEEN SESIOENTZAKO EGOITZAK:  
**UPV-EHUko Ekonomia eta Enpresa Fakultateko Elkanoko egoitza,  
Unamuno Institutoa eta Deustuko Unibertsitatea**

Lantaldeen saioak goizez egingo dira eta UPV/EHUko Ekonomia eta Enpresa Fakultatean (Elkano, Elkano kalea 21), honen ondoan dagoen ES Miguel de Unamuno Institutuan (Poza Lizentziatuaren kalea, 1) eta Deustuko Unibertsitatean egingo dira, egoitza ezberdinen arteko tartea oinez gehienez 15 minututakoa da.



## HIRIA: BILBO

Bilbo, Bizkaiko probintzian dago, Euskal Autonomia Erkidegoan. Tamaina ertaineko hiria da eta 348.000 pertsonako biztanleria du. Bilbo Handia eskualdeko burua da, Bizkaiko biztanleriaren %75 baino gehiago biltzen duena.

1989an Euskadin Espainiako Soziologia Kongresua egin zenetik, hiri honek aldaketa handiak izan ditu hirigintzaren aldetik: batez ere hiri industrialia izatetik zerbitzu-hiria eta garrantzi turistiko handikoa izatera igaro da, eta, zalantzarik gabe, klima atseginak laguntzen du horretan; adibidez, uztailean 20 graduko batez besteko tenperatura du, 25 gradukoa gehienezko batez beste, eta 16 gradukoa gutxienezko batez beste.

### ENCUADRE

*Cruzo la pasarela,  
sobre la ría.  
Llueve,  
sopla el viento.  
Los grises brillan  
en el cauce,  
bajo el puente duerme  
la sombra del museo.  
Lo miro todo,  
lo contemplo todo,  
azotado por la lluvia,  
batido por el vendaval.  
Pero ¿qué veo?  
Ah, si pudiera entender,  
si pudiera explicar  
lo que veo.*

Victor Urrutia Abaigar (1945- 2017)  
Soziologiako Katedraduna (UPV-EHU)  
AVSP/EZPEko Lehendakari ohia  
FESeko ohorezko bazkidea



*BILBAO 15-17 DE JULIO*

## LELOA

### RETOS, EVIDENCIAS, SOLUCIONES / ERRONKAK, EBIDENTZIAK, ERANTZUNAK

1989an, Donostian, Espainiako III. Soziologia Kongresua egin zen, “Soziologia XXI. mendeko erronken aurrean” lelopean. 36 urte igaro ondoren, erronka berrien aurrean gaude, baina baita kongresu hartan aurreikusten ziren beste batzuen aurrean ere.

Harrezkero ez da Espainiako Soziologia Federazioaren (FES) gidaritzapeko Soziologia Kongresurik egin autonomia erkidego honetan, nahiz eta hainbat Euskal kongresu egin diren. FESeko kongresua prestatzeko helburu eta abiapuntuetako bat da XX. mendeko azken urteetan planteatutako erronkei berriro heltzea eta sortu diren berrietan zentratzea, ikuspegi berri batetik, denboran zein espazioan errealitatetik askoz hurbilago dauden datu eta informaziora sarbidea izanik.



Proposatzen dugun leloak, neurri batean, 1989ko lelo hari heltzen dio berriro, erronkei erreferentzia eginez (harrigarria bada ere, ez da termino hori erabili urte hartatik aurrera egin diren hamabi kongresuetako leloetan), baina gure garaira egokitzen du, non jakintza berriek eta informazioa eskuratzeko aukera ikaragarriak gaurkotzea eskatzen duten.

Beti erronka desberdinen aurrean, arazo berri eta zaharren aurrean gaudela kontuan hartuta, baina ikerketa eta tresna ugari ditugula kontuan hartuta ere, eta horiek informazioa eta ebidentziak ematen dizkigutela jakindurian ez ezik ekintzan ere aurrera egiten lagunduko diguten erantzunak eta irtenbideak emateko, lelo bat proposatzen dugu, bizi dugun egoera deskribatzeko dugun modua jasotzen duena:

 *RETOS, EVIDENCIAS, SOLUCIONES*  
*ERRONKAK, EBIDENTZIAK, ERANTZUNAK*

## SOZIOLOGIAKO ESPAINIAKO XVI. KONGRESUA (2026ko uztailaren 15etik 17ra, BILBAO)

Gure diziplinaren lehen formulazioak gizarte-fisika izena hartu zuen, gaur egungo izendapenera eboluzionatu aurretik: soziologia. Aldaketa esanguratsua bezain erabakigarria, gizartearen funtzionamendua lege aldaezinek gidatzen ez dutela onartzea baitzekarren berekin, natur zientzietan gertatzen den bezala. Leloa argia zen: ikusi jakiteko, jakin aurreikusteko.

Errealitatea, ordea, konplexua da, eta egunetik egunera korapilatsuago bihurtzen ari da. Gure ezagutza, beraz, mugatua jarraitzen du izaten. Hala ere, agian iritsi da garaia dakiguna sistematizatzeke: hainbat azterketa, testuinguru eta lurraldetan metatutako ebidentziak katalogatzeko. Horri esker, zenbat ezagutza partekatzen dugun neurtuko dugu, eta, batez ere, larrialdi garaietan eraginkortasun handiagoz jarduteko gaituko gaitu.




Modernitaterako igaroaldiak eraldaketa sakona ekarri zuen bezala, gaur egun ere antzeko aldaketa bizi dugula ematen du, anbibalentziaz betea izan arren. Globalizazioaren eta desglobalizazio dinamikien artean mugitzen gara, Estatu-nazioaren eta forma politiko arkaikoetara itzultzearen artean, demokraziaren baieztapenaren eta gero eta gehiago zalantzan jartzearen artean, meritokrazia ideal gisa hartzearen eta haren desegite progresiboaren artean, eta horrek gizartean biraristokratizazio polarizatua eragiten du. Teorikoki bermatutako ongizatearen eta gero eta handiagoak diren gizarte-ondoezen artean.

Erabateko ezagutzarik ezinezkoa da, baina baliozkotutako ezagutzak baditugu. Kataloga dezagun jada dakiguna, eta jar dezagun praktikan ebidentzian sendo oinarritutako gizarte-politiken bidez. Azken batean, duintasun zientifikoko kontua da. Eta eskura dugun ezagutza aski ez izatearen aitzakia ezin da jada oztopo izan jarduteko.

Proposatzen dugun leloak “ERRONKAK, EBIDENTZIAK, ERANTZUNAK / RETOS, EVIDENCIAS, SOLUCIONES” Soziologia ulertzeko era hau jasotzen saiatzen da.

LOGOAK, bere aldetik, ideia horiek aipatzen ditu, gure herriko tradizioarekin, frontoiarekin, kirolarekin, jolasarekin eta belaunaldien arteko loturarekin oso lotuta dagoen “metafora” bat erabiliz.



Xabier Aierdi Urraza irakasleak, Euskal Soziologia eta Zientzia Polikoko Elkarteko (AVSP/ESZPE) presidente ohi eta Espainiako Soziologia Federazioko (FES) ohorezko bazkideak deskribatzen duen moduan, “Bilbon egingo den Espainiako Soziologia Kongresua dagoeneko hamaseigarrena da, eta kopuru horrek zesta punta edo Jai Alaiko frontoirik luzeenak, itsasotik harantzago ezagutzen diren bezala, markatu ohi dituztenak ere gainditzen ditu.

Zenbaki horiekin batera, kantxan, borrokaren aztarnak marrazten dira: pareta ziprztintzen duten pilotakaden marka zuriak, pilotariek pilotak irrist egin ez dezan eskuetan igurzten duten hautsaren aztarnak. Zehaztasun, ahalegin eta estrategia arrastoak dira.

Horrela aurkezten da kongresu hau ere: asko dira jorratu beharreko gaiak, pilotak airean hartzen dituen ibilbideak anitzak diren bezala. Izan ere, konplexutasuna murriztea —desegin gabe— zientziaren egitekoa da.

Jakintza asko pilatu da, ebidentzia asko bildu da. Eta orain, pilotariek une justuetarako gordetzen dituzten jokaldi fin eta jakintsu horietako batean bezala, zabalerako dejada egitea tokatzen da: pilota behar den tokian sotiltasunez jarri, errealitate bat deskribatzen duen tokian, eraldaketan laguntzen duen tokian.

Neurriak, ekintzak, erantzunak... hor daude jada, prest. Horiek inplementatzea ez da borondate kontua bakarrik, bokazio publikoa duen zientzia batena baizik, eta azkeneraino gizarte duinaren jokoari eusteko gai den bulkada instituzionalaren laguntzarekin”.



## TRATATUKO DIREN GAI-GAKOAK

(BESTE BATZUK ERE LANDU AHALKO DIRA)

- Migrazioak eta migrazio krisiak.
- Politika, demokrazia eta alderdien krisia eta populismoa eta eskuinen gorakada
- Europa.
- Adinkeria eta populazioaren zaharkitze prozesua.
- Etxebizitza, smartcities eta hiri forma berriak.
- Gentrifikazioa, turismoaren arrakasta eta egoiliarren ongizatea.
- Digitalizazioa eta IAren etorkizuna.
- Big data, sare sozialak.
- Arrakala digitala.
- Langabezia eta lan mota berriak.
- Sostengarritasuna eta aldaketa klimatikoa.
- Aniztasuna, abegikotasuna eta inklusioa.
- Pobrezia, ezberdintasuna eta zaugarritasuna, gizarte baztekeria.
- Hezkuntza, Osasuna eta onarriko zerbitzuenganako irisgarritasuna.
- Segurgasun falta, kaleko, genero eta familian ematen den indarkeria.
- Gatazka armatuak.
- Gatazka erlijiosoak.
- Goi mailako Hezkuntza, lan merkatuarekiko egokitzapena eta metodologia berriak.
- Familia forma berriak.
- Metodologia berriak gizarte ikerketan.

## KOMUNIKAZIOETARAKO DEIA

### **BIDALTZEKO EPEA:**

### **2026. URTEKO URTARRILAREN 19TIK MARTXOAK 8RARTE.**

Kongresuaren orrialdean, **parte hartzeko arauak** kontsulta daitezke, komunikazioa aurkeztu nahi duten pertsona guztiek kontutan hartu beharko dituzte. Prozedurak fase bakarra izango du, eta fase horretan komunikazio bat bidali beharko da, dela hedatutako laburpen gisa, dela poster gisa.

**Kongresuko lantaldeen zerrenda** ere kontsultatu ahal da. Lantalde bakoitzaren komunikazioetarako irizpide espezifikoak deian argitaratuko dira. xehetasunez kontsulta dezakezue bertan.

Laburpen luzatua edo posterra bidaltzeko epea urtarrilaren 19tik 2026ko martxora bitartean luzatuko da.

Komunikazioak kongresurako espreski prestatu den aplikazioaren bidez bakarrik bidali eta kudeatuko dira. Aplikazio hori epea hasi ondoren egongo da erabilgarri. Xehetasun guztiak **biltzarraren webgunean** aurkituko dituzue.

**LAGUNDUIGUZU ZABALPENAREKIN!**



# HARRAMENA

Email: [congreso@fes-sociologia.com](mailto:congreso@fes-sociologia.com)

[Espainiako Soziologia Federakundea](#)

[Kongresuaren webgunea](#)

